

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Guretzat oso garrantzitsuak dira hurengo enpresekin harreman onak izatea: garbitzaile enpresarekin, jakiak ekartzen diguten enpresarekin, edariak ekartzen diguten enpresekin, sukaldari kualifikatuekin eta jubilatuen elkarteekin..

Garbitzaile enpresa: gure jatetxera jendea etortzeko oso garrantzitsua da gure lokala garbi egotea. Horretarako, gure garbitzaile enpresarekin harreman estua izan behar dugu. Clyma S.L. enpresa izango da ekintza hau aurrera eramango duena.

**clyma**  
GRUP, S.L.



Jakiak ekartzen dituen enpresa: gure jatetxea aurrera eramateko, beharrezkoak ditugu jakiak platerak prestatzeko. Enverde Alimentacion SI izango da gure distribuidorea.  
Edariak ekartzen dituen enpresa: Patxikoop da gure distribuidorea.





Sukaldari kualifikatuak: gure jatetxeko sukaldariak **bezeroen aurrean sukaldatzen dutenez, ikusten direnez, oso** sukaldari kualifikatuak kontratatuko ditugu. Hauek efizienteak, garbiak, antolatuak, langileak eta arduratsuak izan behar dira. Hauen kontrazioa aurrera eramateko, aldi baterako lanerako enpresa bat erabilikodugu.

Jubilatuak: elkarte hau oso garrantzitsua izango da gure ideia aurrera eramateko. Aiton-amonek gure jatetxean sukaldatuko dute hilean behin. Horretarako, elkarteak bere kideetatik sukaldari onenak aukeratuko ditu.

